

PASARTE HAUTATUA

Denis Levertov Sekretua

Bi neskatilek bizitzaren sekretua aurkitu dute ene poemaren baten ustekabeko lerroan. nik ez dakit.

sekretuak berak idatziko zuen [lerroa. aurkitu zutela esan zidaten (hirugarren pertsona baten [bidez)

baina zer sekretu zen eta zein lerrotan zegoen zehaztu gabe. honez gero seguruasko aste bete iragan delarik ahanztiko zuen sekretua, lerroa, poemaren titulua. baina nik neskatilok maite ditut nik aurkitu ezin dudana aurkitu zutelako, [...]



Liburua: *Hezurrezko xirulak* (Elkar, 1991).

Itzultzailea: Joseba Sarrionandia.

tuzion batik bat: bertsoen mozketari. *Claims for Poetry* lanean jaso zituen horren gaineko azalpenak (1982): «Erreminta bakar batek ere ezin du erdietsi bertso mozketagoki batek bezain efektu sotil eta zehatzik», adibidez. Ausart, kritikatzan zuen askok ez zekitela hori: «Metrikarik gabeko forma garaikideetan idazten duten poetak entzutsuenek apenas duten bertsoaren gaineko ideiarik, eta nahasi egiten dute». Hark aise hartu zion neurria: «Mozketa bat koma erdi bat da».

Lezioak ere utzita

Levertovenak ez ziren aurpegiratzeko soilak, eta ariketak proposatzen zituen esandakoak argudiatzeko: «Hartu idatzitako olerkia, eta prosa bihurtu. Ondotik, bilakatu berriz poema, baina egin mozketak esaldiaren beste parte batean. Irakurri, eta, orain, atera ondorioak». Partiturekin alderatzen zituen olerkien egiturak.

Hogeitik gora poesia liburuki argitaratu zituen, bai eta zenbait saiakera eta itzulpen lan ere. *Sands of the Well* da bizirik zen artean argitaratutako azken lana; 1996an kaleratu zuen. Handik urtebetera hil zen idazlea, 1997an, linfoma batek joxta. Zundu ondotik, haren lanekin ondutako bi olerki bilduma ere eman dituzte.

Konplexutasuna azalera

Irati Majuelo

Aurreko Bertsolari Txapelketa Nagusian, 2017an, bertso gogoangarriak kantatu zituen Maialen Lujanbiok Irungo finalurrekoan. Kartzelako ariketan «Dena ondo zihoan argia piztu den arte» gaiari erantzunez, harridura eta zirrara sorrarazi zizkien bertan zen publikoari zein ondoko egunetan Internet eta telebista bidez zabaldu zen bideo birala ikusteko aukera izan zutenei. Horietariko bat izan zen Jexux Eizagirre, eta hunkituta, bertso horiek zuten potentzialaz jakitun, istorio bat sortzeko proposamena egin zion Ainara Azpiazu Axipli ilustratzaile eta komikilariari. Egun hartan piztu zen txinpartaren emaitza da *Utzi azalari* nobela grafikoa, Hernaniko Dobra euskara elkartearen bitartez argitaratu dena.

Gau bateko sexu enkontrua

deskribatu bazuen Lujanbiok, pertsona ez-bitar baten bizipenetik kontatua, Axipli-k amasa luzea goa eman dio istorioari. Izan ere, bertsoak oinarri badiu ere, nobela grafikoa ez da soilik eszena horretara mugatzen, eta, hala, pertsonaia gehitu eta bakoitzari berezko ibilbide eta ezaugarriak eman dizkie. Aurretik bertsolariak sortutakoa bere horretan beste diziplina batera lekualdatzea



'Utzi azalari'

Egilea: Ainara Azpiazu Aduriz, Axipli.
Argitaletxea: Dobra Elkartea.

Seinaleetako zakurra

HAUR ETA GAZTE LITERATURA

Imanol Mercero

Ipuin ilustratua da, testu laburreko eta ilustrazio oso esanguratsuekin egituratua.

Bertan, Kixkur txakurraren zorigaitza zein den kontatzen digu narratzailearen rola jokatzen duen elefante batek. Kixkurren neba *Pintto-Pintto* abestiko *Pintto* izanik, haren itzalean bizi da. Tamalez, neba ez da abestian irudikatzen den animalia jostalaria, baizik eta alferra eta umore zakarrekoa. Kontakizunaren amaierarako, ordea, Kixkurren egoera aldatzen ikusten dugu, eta oreka berria nola ezartzen den.

Testuak narratzaile ahots eraginkorra eskainita ere, ilustrazioek zeregin handia dute. Irudien bidez ezagutzen ditugu anai-arreben izaera eta aldarreak, iru-

dien bidez argitzen dira gertakarien zehaztapenak, eta irudien bidez eraikitzen dira umorezko gag gehienak.

Jakingarri gisa, Wikipediari esker badakigu *Pintto-Pintto* kanta Zaldibiako Emilio Txurruka txistulariari entzunda grabatu zutela Kixki, Mixki eta Kaxkamelon pailazoek 1975ean, eta ospetsu bihurtu. Jatorriari dagokionez, Jose Inazio Ansorenak XIX. mendeko haur kanta bilduma alemaniar batean topatu omen du doinua.



'Kixkur Pinttoren arreba'

Idazlea: Iñigo Astiz. **Ilustratzailea:** Mikel Valverde. **Argitaletxea:** Elkar.

ekidin du, beraz, esanahi zabalagoa emanez lanari. Horiek horrela, bi protagonista nagusi aurkezten ditu liburuak, Elene eta Mikel, beste lagun batzuekin batera *Sugegorri* fanzinea prestatzen aritu direnak, eta gau batez elkarrekin sexua edukitzen dutenak.

Interesgarria da pertsonaien karakterizazioa, sarritan literaturan pertsonaia trans edota ez-bitarak irudikatzen baitira hori baitz bezala euren ezaugarri bakarra, identitate eta izaera horrek soilik definituko balitu bezala. Nobela ilustratu honetan, berriz, Elene pertsona trans edota ez-bitarra izateaz gain, Arte Ederretako ikaslea ere bada, lagunekin bizi da, gustuko du parrandan ateratzea, fanzine bat sortzen ari da, komikigile kutunak ditu, artean islatzen den gorpuzkera homogeneoak kezkatzen du... Finean, pertsonaia erreala bat da, bere konplexutasunean. Horrek ez du esan nahi istorioan agertoki ideal bat erakusten denik, Elenek iraganean esperientzia txarrak edota hutsalak izan baititu sexuan, eta hori ere agerian geratzen da, gizartearen gorputz ez-normatibotik dagoen pentsamendu zurruna azalaraziz.

Autoreak baliabide berbera erabili du Mikelekin: ez da pertsonaia laua, baizik eta kezkak eta grinak dituen gizona, bereizgarri jakinak dituen pertsona. Besteak beste, baserrian bizi da aitarekin, familia erlijiosoa edo tradizionala du, poesia idaztea atsegin du, lotsatia da eta maite du naturarekin harremanetan egotea. Bi pertsonaien ezaugarritze aberatsak ahalbidetzen du nobelak amaiera itxirik ez izatea; Elenerekin bizitakoak zerbait pizten dio Mikeli, ez da argi gertatzen hausnarketa, ezinegona edota ilusioa ote den, baina bai bulkada bat, elkarrekin igarotako gaua ahanzturan edo indiferentzian galtzen uzten ez duena. Nobela osoan zehar ageri da, hala, ber, sugerean figura, bi protagonisten erlaketaren metafora modura funtzionatzen duena.

Bestalde, aipatu beharra dago nobela grafikoa eskaintzen dituen baliabideei zukua atera diela Axipli-k. Irudiari protagonismoa emanik, hitz gutxirekin lortzen du istorio konplexu eta interesgarria osatzea, eta horretarako bere egiten du onomatopeien, keinu txikien edota koloreen adierazgarritasuna.

Zenbat buru?

HAUR ETA GAZTE LITERATURA


Imanol Mercero

Euskal herrietako ipuinak markarekin, ipuin tradizionalak berreskuratzeari ekin zion Juan Kruz Igerabidek 2017an. Lau liburuki osatuak zituen, ezaugarrien arabera multzokatuak (laminak, krudelak...). Orain, bosgarrena plazaratu du, herensugeak gai hartuta. Aurrekoekin alderatuta liburuaren diseinua erabat desberdina da, bai-na helburua mantentzen du.

Sei testuko sorta biltzen du eta, gaia euskal tradizioan urria izanik, dagoen gehientsuena erretratatu du. Liburuaren hiru, lau eta bosgarren testuek Barandiaran, Azkue eta Webster folkloristen bildumetatik jasoak dirudite, hurrenez hurren, eta tradizioak piztia harrigarri honekin osatutako testu desberdinen sintesi lana egiten dute. Bigarren eta seigarren testuek herensugeen in-

guruan euskaldunok eduki ditugun barne eta kanpo ikuspegiak erretratatzeko asmoarekin (eta abilitadearekin) osatuak dirudite. Lehen testua Igerabideren asmazioa da, kanta-poema jostalarik bat dena, arina, errepikapenean oinarritua.

Guztien artean, eta Elena Odriozolaren ekarpena lagun, esan beharrekoak esan direla dirudi, herensugeei dagokienez.



'Herensuge'

Idazlea: Juan Kruz Igerabide.
Ilustratzailea: Elena Odriozola.
Argitaletxea: Denonarte.